



## ESKOLA TXIKIEN I TOPAKETAK

### BERGARA 2005EKO EKAINAREN 28A

#### Tailerrak

1. Adin aniztasuna gelan
2. Eskolen arteko harremanak
3. Zuzendaritza
4. Gurasoak

#### **1. ADIN ANIZTASUNA GELAN**

Tailer honek interes handia piztu du irakasleen artean eta partaide kopuru handiagatik bi talde egin dugu.

Gure geletako adin aniztasuna gure ezaugarri nagusienetako da. Ados gaude denok aniztasun horrek ikasteko aukera handiak ematen dituela eta etekina atera behar diogula. Adin ezberdinek eta ikasle kopuru txikiak, aukera handiak ematen dizkigute bizikidetzaren baloreak indartzeko, ezagutza konpartitzeko, autonomia, errespetua eta lankidetzaren lantzeko...

Tailer honetan aukera horiek, zailtasunak, proposamenak... aztertzen aritu gara.

#### IRAKASLEAK

##### ***Materiala-testu liburuak***

Merkatuan dagoen material didaktiko delakoa, testu liburuak etab, mailaka antolatuta dagoenez ez da oso egokia bere hartan gure geletan erabiltzeko. Batzutan material horiek egokitzen edo gure material propioak sortzen saiatzen gara eta horrek lan handia ematen du.

Materialekin orokorrean arazoak daude. Zenbait irakasleen iritziz, ez da nahikoa dauden liburuak erabiltzea, baina material batzuk egotea ere komenigarri ikusten da (zer landu duten jakitea, zer falta den jakiteko...). Beste batzuen iritziz legeak markatzen dituen minimoetan oinarritu behar dugu, ez argitaletxeen erabaketan.

Orokorrean ziklo amaierako materiala erabiltzen da eta gelako txikieneke kezka sortzen digute, dena dela LOGSE zikloka antolatuta dagoela kontutan hartu beharko genuke.

Arlo gehienetan arazorik gabe moldatzen gara baina matematika lantzeko testu liburuaren beharra sumatzen da, eta hiruzpalau testu libururekin batera lan egitea ezinezkoa da.

Gurasoek eskola txikiak eta handiak konparatzen dituzte eta batzutan haien seme alabek ere testu liburuak erabiltzea eskatzen dute. Gure baliabideen balorea (teknologia berriak...) azaldu behar diegu. Gure irudia zaindu behar dugu.

## ***Planifikazioa, metodologia***

Gure geletako berezitasunari, adin aniztasunari, etekina atera behar diogu. Ikasleen arteko interakzioa bultzatu behar dugu, elkarrekin ikasten dugu, ikasleen ezagupenak sozializatu.

Konstruktibismoak ekarpen teoriko eta praktikoa garrantzitsuak egin ditu gure eskoletan.

Lan proposamen zabalak egin behar ditugu, ikasle guztientzat egokiak eta bakoitzaren erritmoa errespetatuko dutenak. Jarduera berdina planteatu baina helburu ezberdinekin adin bakoitzeko. Matematikan zaila egiten zaigu horrelako planteamenduekin lan egitea.

Funtsezkoa da “metodologiaren kontrastea” egin ahal izatea beste irakasleekin, helburuak denon artean ikustea etab. Beste irakasle batekin planifikatzea lagungarria da, horretarako beste ikastetxetako irakasleekin harremanak beharrezkoak dira. Eskolen arteko zikloko bilerak antolatzea oso interesgarria litzateke.

Geletako antolaketa argia izan behar du ikasle bakoitzak jakin dezala zer egin behar duen momentu bakoitzean.

## ***Ebaluaketa***

Orokorrean kezka dago ebaluazioaren inguruan. Badirudi testu liburuak maila markatzen duela eta libururik gabe gurea da ardura. Maila ezberdinekin ari garenez, argi eduki behar dugu bakoitzari zer eskatzen diogun. Hizkuntza ebaluatzen zaila dela eta matematika zehatzegi ebaluatzen dugula aipatu da.

Ebaluazio irizpideak zein helburuak jartzeko denbora behar da. Nola egin? Maila bakoitzeko, ziklo bakoitzeko?

## **IKASLEAK**

### ***Sozializazioa-Autonomia***

Adin ezberdinetako ikasleak gela berean eskolatzeak onurak ekartzen dituela argi dugu. Eskola txikiak ematen duen aukera, ikasle guztiak batera, aktibitate batzuetarako oso positibotzat jotzen da ( jolas kooperatiboak, irteerak elkarrekin...). Bai ikasle nagusienek baita txikien ere aniztasun honi etekina ateratzen dute, txikiak handiengandik asko ikasten dute eta handiek beren ezagutzak finkatzen dituzte.



Haur bakoitzak orokorrean rol bat mantentzen du bere eskolatzeko osoan. Horrek markatzen du nolabait. Eskola Txiki batean taldez aldatzean eta egoera ezberdinetan egotean rol hori aldatzeko aukera izaten du. Ez dauka zertan betiko berdina izan. Batzuetan handia, besteetan txikia, batzuetan azkarrena, besteetan erdipurdikoa... Zailtasunak gainditzeko lagungarria da. Gure eskolak beste aukera bat ematen du ere: bizitzan edo taldean ez kokatzea soilik adinagatik, gainontzeko ezaugarriak garrantzitsuagoak izatea.

Eskola txikietan ematen diren harremanak oso aberatsak dira, herrian bertan, kalean, familien artean... Familia giroa dago, gehienetan onerako baina baita txarrerako zenbaitetan. Elkarrizketak, formak... zaintzea oso garrantzitsua izaten da. Giroa zaindu. Haurrek bata besteari laguntzeko duten joerak laguntzen du. Talde txikiek eta anitzek integrazioa errazten dute.

Azken urteotan aldaketa handiak ematen ari dira herri txikietan, kanpoko jende asko etortzen ari da eta horien integrazioan eskolak badu zeregina.

Gure ustez gure ikasleek autonomia maila handia garatzen dute, batetik bizi diren inguruneak aukerak ematen duelako, haurrak kalean bakarrik ibiltzen dira, eskolara etorri... (nahiz eta hirietako mamuak herrietan azaltzen hasi diren), eta bestetik taldearen ezaugarriengatik ardura gehiago hartu behar izaten dituztelako.

## **Kezkak**

Kezkarik handienak eskola txikienetan daude.

- Zenbat maila elkartu? 2 urtekoak 12koekin?
- Adin bakoitzeko gutxieneko ikasle kopururik?
- Mutil edo neska bakarra gelan?
- Harremanak zabaltzeko beharra ondoko herriko eskolarekin. Gai batzuk elkarrekin egiteko asmoz ikastetxeen arteko taldeak osatu. Arratsaldero batu, zikloka elkarrekin lan egin... baina, nola eraman leku batetik bestera?, kotxe partikularrak?

## **GURASOAK**

Gurasoek eskola txikiak eta handiak konparatzen dituzte eta batzutan haien seme alabek ere testu liburuak erabiltzea eskatzen dute.

Zenbait gurasori ez du gustuko euren seme alabak taldeko zaharrenak izatea, pentsatzen baitute txikiekin egonda galdu egingo dutela.

## **ANTOLAKETA.**

Taldeak eta irakasleak antolatzeko garaian bi arazo nagusirekin topo egiten dugu. Batetik irakasleen iraunkortasun falta eta bestetik irakasleen gehiegizko ardurak (dispertsioan).



Iraunkortasun faltaren eraginez urtero antolaketa berrikusi behar da, horri irakasleen prestakuntza falta gehitu behar zaio, izan ere irakasle gehienak ez dute maila elkartutako geletan lan egiteko prestatuta. Irailean berriekin ikastaro bat egitea proposatzen da (Bizkaiko esperientzia)

Tutoreak lan handia du bere lana planifikatzen. Honi edozein eskolatan dauden ardura guztiak gehitu behar zaizkio (zuzendaritza, liburutegia, hizkuntz normalkuntza, lan arriskuak....).

Baliabideen antolaketaren inguruko hausnarketa beharra ikusten dugu.

## **PROPOSAMENAK.**

- Barne koordinaziorako denbora
- Lan taldeentzako koordinatzaileak
- Ordu libreak
- Zonalde bakoitzean irakasle bat koordinatzen

## **2. ESKOLEN ARTEKO HARREMANAK**

### **Gaiari sarrera**

Eskola txikien arteko harremanak, era ezberdinetakoak, errealitate bat dira gurean. Elkarte hauen arrazoiak bilatzekotan hauek aipatuko genituzke:

#### Ikasleei begira:

- Sozializazio prozesuak indartzeko. Ume gutxi eskoletan, adin bereko beste ume batzuekin egoteko aukerak eman...

#### Eskolei begira:

- Indartsuago sentitzeko, nortasuna sendotzeko
- Babestuago egoteko
- Arrazoi ekonomikoak:gastuak partekatzeko (irteerak...)

#### Irakasleei begira:

- “Bakardadeari” aurre egitea
- Elkarrekin ikasteko,hausnarketa pedagogikoa.
- Eskola handia eta tradizionalaren ereduak apurtu nahia
- Besteen erreferentziak izatea.
- Arazo komunei aurre egitea. (erreforma nola, zuzendaritza dekretua, premia...



Harreman motak:

- Ikasleekin egiten diren irteerak, jaialdiak
- Gurasoek antolatzen dituzten festak.
- Irakasleen arteko harremanak-proiektuak.

## **Eskolen arteko proiektuak beharrezkoak**

Eskolen arteko elkarlana oso baliagarria ikusten dugu, eskola txikientzat ezinbestekoa.

Honekin batera, hala ere, garrantzi handia ematen zaio eskola herrian egiteari, gurasoek nolako eskola nahi duten, herritarrek... Eskola txikiak eta herri txikiak komunitate sendoak izateko aukera dute. Eskola eta herriaren arteko lotura sendoa da.

## **Nolako proiektuak**

Gure beharretara lotutako proiektuak behar ditugu, batzutan gehiegi lotzen gara hezkuntza administrazioaren lehentasunetara eta eskolarenak alde batera utzi ezin direnez lanpeturik ibiltzen gara.

DBHko zentroekin harremanak izateari ere garrantzi handia eman zaio. Gurasoak seme alaben emaitzetaz kezkatzen dira, zer gertatzen da DBHko zentroetara pasatzen direnean? Koordinazioa oso garrantzitsua da, gure ikasleak zentro berrira egokitu behar dira baina baita zentroa gure ikasleetara. Gaztelan, adibidez, ez da kontutan hartzen ikasleen jatorria eta haur euskaldunei gehiegizko eskakizunak egiten zaizkiela iruditzen zaigu.

## **Baldintzak**

Elkartzeko garaian garrantzi handikoa da interes komunak izatea eta talde txikia izatea. Zenbaitetan talde handiegietan bildu izan gara. Era berean, proiektuak aurrera eramateko koordinatzaileak ezinbestekoak dira, horretarako denbora izango dutenak.

Errekurtso zentro berezia (berritzegune) izatea komenigarria izango litzatekeela aipatu da. Berritzegunetako proposamenak eskola handietara zuzenduta daudelako gehienbat. Eskola txikien aholkulariaren perfila zehaztu beharko litzateke.

Bestalde irakasleen iraunkortasunak eragin handia du proiektuetan. Proiektuak eta plantilak lotu beharko lirateke, (proiektu honetarako irakasle hauek behar ditugu)

## **Bestelakoak**

Euskalkia mantentzeko neurriak hartu beharko lirateke, irakasleak izendatzeko garaian kontutan hartu. Euskara biziberritzeko planak.



Eskola Txikiak “saldu” behar ditugu, gure eskolen baloreak azaldu. Produktu ona izateko elkartu behar dugu, hausnartu, teorizatu. Horretarako, ere, denbora behar dugu.

Arau askotan salbuespena gara eta teknikoen sentsibilizazioarekin eta gure insistentziarekin jokatu behar dugu.

Eskola Txikien elkarteak sortu, egitura juridikoa emanez indarra emango liguke..

Webgune bat egin beharko genuke, elkarren arteko komunikazioa bideratzeko, proiektuen berri emateko, gure ikasmaterialak jartzeko...

### **3. ZUZENDARITZA. ESKOLA KUDEAKETA**

Tailer honetan Eskola Txikietako zuzendaritzarekin lotutako hainbat arazo jorratu dira. Denboraren muga bitarteko, beste asko aztertzeke geratu dira, beraz, antzematen da honelako foroek etorkizunean ere emango dutela etekinik.

Konklusio bakar batera iritsi beharko balitz, hauxe izango litzateke: Eskola Txikiek status juridiko propioa eduki behar dute. Zertan gauzatu beharko litzateke berriazko izaera hori? Ondorengo puntuotan, hasteko:

#### **Irakasleen egonkortasuna**

Eskola Txikiek daukaten premia nagusietako bat irakasleen egonkortasuna maila hobetzea da.

Irakasle finko gutxi egotearen ondorioz, zuzendaritza taldeak behin betikoen artean banatzen dira gehienetan. Kasu batzuetan aldaketa sistemak adostuta daude eskolotan, baina definitibo bat edo bi dagoenean, badirudi hauek “bizi osorako” zuzendari izaten direla.

Garrantzia ematen zaio hiru urteko proiektioarekin aritzeari, baina horretarako, esan bezala, irakasleen egonkortasun maila hobetu behar da. Horretaz gain, lana banatzen ere ikasi beharra dago, baina berriro ere ezegonkortasunaren arazoarekin egiten da topo, zeinen eraginez definitiboek bukatzen duten ardurak beren gain hartzen.

Helburu hori lortzeko, garrantzitsutzat jotzen da konkurtsoan ahalik eta plaza gehien ateratzea finko bezala. Eta hortik aurrera, zerbitzu eginkizun modura eskaintzea lan postu horiek. Gainera, azken bide honetan, kontuan hartu beharko lirateke eskola bakoitzean aurretik egon diren irakasleak. Era beran, Eskola Txikietan lanaldi erdian dabilzan irakasle espezialistak eskolotan geratu ahal izateko formulak ere topatu beharko lirateke, beren borondatearekin kontatuz.

#### **Zuzendari lanaren aniztasuna**

Eskola Txikietako zuzendaria tutore ere izan ohi da. Are gehiago, zuzendariak aginte organo baino lehenago tutore sentitzen dira, eta eginkizun hori lehenesten dute.



Baina, horretaz gain, proiektuen koordinazioa, administrazio lanak, informatika alorraren ardura eta abar ere badaramate. Pertsona berarengan ardura eta lan mota asko eta desberdin erortzen dira. Lanaren aniztasun hau ez du kontuan hartzen Administrazioak. Eta zaindu beharko luke, zeren eginkizun guztiok betetzen badira ere, sarritan norberaren osasunaren aurka izaten da. Alde honetatik, zenbat eta txikiago izan eskolak are eta laguntza gehiago behar izaten dute. Kontuan izan behar da karga burokratikoa eskola handietan eta txikietan berdina dela, bolumena dela azken hauetan jaisten dena soilik. Eta batzuetan zein besteetan azken urteetan zuzendaritza lana etenik gabe handitzen ari dela.

## **Figura batzuk mapa bidez finkatu**

Figura batzuk, beren berezitasunagatik, mapa baten bidez finkatu beharko lirateke. Horrela antolatu beharko lirateke AKAREN figura eta IKTren arduradunarena ere, aholkulariekin egin zen bezala. Halako garrantzia duten eginkizunok era honetan bideratzeak asko lagunduko lieke zuzendariei, lan hauek behar duten prestakuntzagatik errespetu handia eragiten baitie horretan adituak ez direnei.

## **Ordu kredituak edo ratioak**

Eskola txikien karguetarako ordu kredituak indartu egin behar dira.

Zeregin administratiboetarako, jantokiko arduradunekin gertatzen den modura, ordu kreditu finko bat azaldu beharko litzateke LZ-RPTan.

Ikasleak taldekatzean lau edo bost adin biltzen direnean ere ratioak berrikusi egin beharko lirateke.

## **Ikasleen taldekatzea**

Erabaki honek aukerak egin beharra ekartzen dio eskolari. Izan ere, orduak talde txikiagoak egiten erabiltzen badira, ez da zuzendaritzarako ordurik geratzen.

Joera taldeak bi adinetan biltzea da, gero eta gehiago. Orokorrean, badirudi gurasoak ere horren aldeko agertzen direla. Baina zalantza batzuk sortzen dira: ez ote da nahi gabean ere mezu hori transmititzen zaiela gurasoei? edo ez ote da metodologia arazo bat? Honek guztiak hausnarketa sakonagoa eskatzen du. Baina, edozein kasutan ikusten da: ikasle kopuruaren gutxienekoak ere zaindu behar dira; adinak ez dira berdinak elkartzeko garaian (3. mailatik 6.era elkartzea errazagoa da, 1.tik 4.era baino); nahiz eta hiru edo lau adin elkarrekin egon, arlo batzuetan bikoizketak ere egiten dira.

Beraz, oreka bilatu behar da taldekatzean eta errekurtsoen banaketan. Baina, edonola ere, ikasle kopuruak mugan daudenean, ACIak eta abar daudenean, laguntzak ematea litzateke irtenbide bat. Horretaz gain, irakasle berriei egokitzen lagundu behar zaie.



## Hezkuntza Administrazioaren jarrera

Arduradunek beren jarrera hobetu egin beharko lukete Eskola Txikiekiko.

Hezkuntzak ez ditu Eskola Txikien berezitasunak behar adina aintzat hartzen. Eskola batetik konponbide bila abiatzen direnean, araudi marko orokorrarekin egiten dute topo eta ezin izaten dira arazoak bideratu.

Administrazioak ikastetxeen (zuzendarien) eskaerei jaramon gehiago egin beharko lieke. Sarritan sindikatuak jartzen ditu aitzakia, baina hauek diotenez argudio horrekin joko bikoitza egiten du Hezkuntzak, beraiei ez baitiete kasurik egiten.

## Zuzendaritza Dekretua

Dekretuak ez du berriztapena erraztu. Borondatez oso gutxi aurkeztu dira. Talde honetan bildutakoetan %16ak baino ez du bere burua hiru urtetarako aurkeztu.

Agindua berandu atera zen eta inportantea zen zuzendaritza funtzioari buruz eztabaidatzea eskoletan.

Hala ere alde baikorra izan du: irakasle guztien parte hartzea ahalbidetu duela. Alabaina, interinoek zuzendaritza hartzeko aukera izango zutela uste izan zen. Baina gero atzera bota ziren, ziurtasunik ez dagoelako egonkortasunarekin.

## Zuzendarien formazioa

Arlo honetaz kezka dagoela antzeman da taldean.

Zuzendaritzarako prestakuntza beharrezkotzat jotzen da. Edukiari dagokionez honako arloak hartuko ditu, besteak beste: kudeaketa gaiak, koordinazioa, talde dinamizaziorako eta lanak delegatzeko teknikak...

Berritzeguneetan antolatzen diren zuzendari mintegiak era baliagarritzat jotzen dira. Berdinen arteko ikasketa dira.

Hala ere formakuntza eskola handientzat pentsatuta dagoela agerian geratu da. Baina, Zuzendaritza Programako ordezkariak adierazi duen bezala, proposa daiteke eskola txikien berezitasunak gaika hartzea, eta saiaturiko dira hemendik jaso daitezkeen proposamenak biltzen eta moldatzen. Dena dela, funtsean edukia bera izango da, eduki kopurua ezin baita jaitsi; baina ordutegiak eta abar kontuan har daitezke.

Prestakuntza ikastaro hauetarako beharrezkoa litzateke liberazio maila batekin kontatzea, baina oraindik zeharo erabakita ez badago ere, badirudi ez dela denbora krediturik izango horretarako.

Ikastaroetan parte hartzeko lehentasuna emango zaie hiru urterako konpromezua hartu dutenei. Gero, plazak sobera badira, besteei eskainiko zaizkie.



## Egoitzak

Eraikinen atalak ere kezka eragiten du. Kasuistika oso zabala da, baina orokorrean, ez Eskola Txikietan bakarrik, antzematzen da hutsune bat badagoela: Administrazioak lehentasunak markatzen dituenen, ez ditu kontuan izaten edifizioak, lehentasun bezala hartzeko. Arazoa sortzen denean, orduan heltzen dio, eta gehienetan presio baten atzetik.

Eskola bat baino gehiagotan, lanak bukatu eta handik bost edo hamar urtetara oraindik “fin de obra” eman gabe dago. Kasuren batean legez gainditu beharko lirartekeen oztopo arkitektonikoak ez dira moldatu, nahiz eta mugikortasun arazoak dituen ikasleren bat egon. Arazo honen atzean udala eta Hezkuntzaren arteko konpon ezina antzematzen da.

Bestalde, azken urteetan egokitzapen asko egin behar izan dira ikastetxeetan, eta kasu batzuetan, udalak ezin izan dio aurre egin egokitzapen guztietarako behar den kopuru guztiari. Honek trataera orokorra eduki beharko luke, kasu guztietan irtenbide bateratuak izateko.

Bitxikeriak ere topatzen dira arlo honetan: eskola batean egin behar zituzten konponketetan ez dizkiete dutxak onartu; beste batean, berriz, ez dute onartu konponketa proiektua dutxarrik ez zuelako.

## 4. GURASOEN PARTAIDETZA

Gurasoen partaidetza eta elkarteen arteko harremanak izan dira aztergai nagusiak.

Partaideen aurkezpenarekin batera eskola bakoitzaren egoera eta arazo nagusiak azaldu dira.

### Guraso elkarteen koordinakundea. Gipuzkoako eredua

Gloriak Gipuzkoako Eskola Txikien Guraso Elkateen Koordinakundea nola eta zergatik sortu zen azaldu du. Gaur egun 26 eskola daude koordinakundean eta hiru herriz osotutako Batzordeaz gain ( bi urteko txanden bidez osatzen dena) Lehendakari iraunkorra du Koordinakundeak (Gloria Castaños bera).

Koordinakundea erreferentea da, bai eskolentzako (arazoren bat dagoenean, eskola berri bat zabaldu nahi denean,... jendeak badu nora jo informazioa jaso eta kontaktuak bideratzeko), baita administrazioarentzako.

#### Hartutako konpromezua:

Gipuzkoako Koordinakundea izateak duen balorazio positiboa ikusita Bizkaian ere antzeko zerbait eratzeko ahaleginak egingo dira.



Horretarako hasiera batean Ispaster, Munitibar, Arteaga, Muxika, Mundaka, Lemoiz, Arrankudiaga, Areatza eskoletako gurasoekin kontaktatu (batzuk bertan daude) eta Koordinakundea eratzen hasiko gara. Batzordea eratu eta eskola guztiekin harremanetan jarriko gara sarea eratzeko asmoz.

## Eztabaidarako gelditu diren gaiak

Aurkezpenetan gai desberdinak agertu dira eta denbora faltagatik ezin izan dugu ondoriotara heldu. Hala ere, gai horiei buruz hausnartzen segitzeko beharra ikusi dugu (non eta nola erabaki gabe).

Gaiak ondokoak dira:

- Euskararen erabilera. Inguruaren arabera gaztelania gero eta presentzia handiagoa du. Nola integratu familia erdaldunak nortasun euskalduna galdu gabe?
- Zerbitzuak
  - Jangelak. Aurrerapauso handiak eman badira ere, jarraitu behar da gaiarekin.
  - Garraioa. Zonifikazioarekin lotuta dago
  - Zaintzak. Ordutegi zabalagoa izateko beharra gero eta handiagoa da. Haur Eskolekin harremana sendotzen joan integratiorantz? Eskolaz kanpoko ekimenekin bete arratsaldeko zaintza?...
- Funtzionamendua
  - Guraso Elkarteak. Batzordearen bidez, guztion bileren bidez funtzionatu...
  - Eskola kontseilua. Guraso guztiek parte hartu Eskola Kontseiluan?
- Herrigintza. Udalarekin, Kultur Elkarteekin.... Harremanak
- Etorrinak. Gero eta etorkin (eta oro har kanpotar) gehiago etorriko dira gure herrietara.

